



ESKOLA KIROLA BERRIZ ERE MARTXAN!



Urri hasieran abian jarri zen Oarsoaldeko ikastetxe guztietan Eskola Kirola programa. Iazko ezohiko ikasturte ostean, aurten haurrek eta gurasoek gogoz hartu dute kirol eskaintza, eta duela bi urteko parte hartze datuetara bueltatu da.



GEROZ ETA GEHIAGO: 1.400 HAUR ETA 140 TALDE

1.400 haur baino gehiagok eman dute izena eskualde mailako eskaintzan, eta 140 talde osatzea lortu da. Azpimarratu beharra dago talde misto kopuruak izan duen igoera, aurreko urtean gai honekiko esperientzia oso positiboa izan baitzen.



**Denok gara eskola kirola.
Mugitu, jolastu, hezi!**





Hau guztia martxan jartzeko, 11 ikastetxeetako koordinatzaileak eta 51 hezitzaile inguruk Eskola Kiroleko koordinatzaileekin lan gogorra egin behar izan dute inoiz baino kirol eskaintza erakargarriagoa eta zabalagoa eskainiz.



ASTEBURUAK BERRIRO ERE KIROLEZ BLAI

Nahiz eta ikastetxeetako saioak hilabetearekin batera hasi ziren, larunbat honetan izan da lehenengo asteburuko jardunaldia. Hurrek Piragua, Arrauna, Natura jarduerak, Erritmo saioa eta Pilota probatzeko aukera izan dute.



**Denok gara eskola kirola.
Mugitu, jolastu, hezi!**

